

## Lantegiak

### Naturaren garaia da. Zure auzoak harrituko zaitu!

#### Iruñeko Udaleko Ingurumen-hezkuntzako Taldearekin elkarlanean eginiko jarduera

Jolasaren bidez, gure inguruan dauden eta zaintzen gaituzten espazioak ezagutuko ditugu. Ingurune, parke eta lorategi horiek onura asko eta handiak ekartzen dizkigute bai gutako bakoitzari bai auzoan bizi garen guztioi. Beraz, espazio horiek ezagutzea proposatzen dizugu, zentzumenen bidez emozioekin eta naturarekin lotuko ditugun jarduera sorta bat eginez.

*Edurne Gerendiain eta Amaia Esparza (Garrapo S.L.)*

**Uztailak 28, asteartea**

11:00etan (90 minutu)  
6tik gora (haurrak, heldu batek lagunduta)  
Doakoa.  
Aurrez izena emanda

\* OHARRA: Ekarki etxetik musuzapi bat edo antifaz bat jardueraren zati bat egiteko.

#### Familiarteko Lantegia

### Nire auzoa, langai: kolorea (euskeraz)

STEAM metodologiaren aplikazioa: artearen bidez ikertu eta jolasteko era jolasgarri, hezigarri eta sormenezkoa. Lehen lantegi honetan, koloreari buruzko bi saiakuntza eginen ditugu. Lehenean, ikusiko dugu nola doan kolorea ontzi batetik bestera, kolore berriak sortuta. Eta bigarrean, berriz, ortzadar bat sortuko dugu. Familia bakoitzari kit higienizatu bat emanen zaio.

*Erkuden de Andrés*

**Uztailak 30, osteguna**

17:30ean (90 minutu)  
3-6 urte, heldu batek lagunduta  
Doakoa.  
Aurrez izena emanda

### Auzoa argazkiratzen. Milagrosa

*Kamera erabiltzen jakin beharra dago.*

Auzo berri batera joan, eta lineen konposizioaz eta argazkiaz mintzatu gara arkitekturarekin batera.

*José Luis Pujol*

**Uztailak 29, asteazkena**

19:00etan (120 minutu)  
18tik gora  
Doakoa.  
Aurrez izena emanda



## Ahozko narrazioa

### Saxofonistaren istorioak

Iratik, txikitan, segituan ikasi zuen oinez, bakarrik jaten... Baina ez zuen hitz egiten ikasi. Amaia ezagutu zuen arte, eta horrek saxofoia bat eskaini eta haren bitartez komunikatzen hasi ziren. Orain herriz herri dabiltza beren musikarekin istorioak kontatzen. Entzun nahi duzu bidean ikasi zutena?

*Ameli & Xirrikituen jostunek (Amaia eta Irati)*

**Uztailak 27, astelehena**

19:00etan (60 minutu)  
3-7 urte, heldu batek lagunduta  
Doakoa

## Kaleko antzerkia

### Zinemaz Blai (Euskera)

Ikuskizun honen bidez, zinemaren mundua oholtzara ekarri nahi izan dugu. Eszena prestatzen ari den ekipoa ezagutuko dugu. Hirukote dibertigarri eta jostalaria da... Gero, artistak eta beren istorioak etorriko dira... A ze koadrila!

*Zirika Circus (Ainhoa Juaniz, Luis Lainez eta Maribel Martínez)*

**Uztailak 29, asteazkena**

19:00etan (60 minutu)  
3tik gora (haurrak, heldu batek lagunduta)  
Doakoa

## OHARRA

**Inskripzioa, laguntza eta segurtasun neurriei buruzko informazioa**  
Aurrez izena eman beharreko jardueretarako, aurretik [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es) web orrian edo Civivox zentro batean eman behar da izena jarduera hasi baino ordu bete lehenagora arte.

Maskara erabili beharko da jarduera egiten den tokira sartzeko (6 urtetik beheitikoentzat izan ezik), baldin eta beste pertsona batzuekiko segurtasun distantzia (1,5 metro) mantendu ezin bada.

Gomendagarria da zentroan egotea jarduera hasi baino ordu erdi lehenago, jarduera egiten den aretora era antolatuan sartzeko.